



ONLINE IKASTAROA ZUZENEAN - Jolasaren eta naturaren bidez ikasiz -TAILER PRESENTZIALA (azken egunean)



Ira. 29 - Urr. 03 2020

Kod. X37-20

Mod.:

Online zuzenean

Edizioa

2020

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 29 - Urr. 03 2020

Kokalekua

Online Ikastaroa zuzenean / Ekogunean Taillera

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

13,5 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Ikastaroak, zuzeneko online saioak irailaren 29an, 30ean eta urriaren 1ean, eta aurrez aurreko tailerra urriaren 2an izango ditu.

Jolasa eta natura: teoria-mailan onartuta dago biek haurren garapenean berebiziko garrantzia dutela baina praktikan, ba ote dute haurrek espaziorik eta denborarik horretarako? EAEko 237/2016 Dekretuak, «haurren eskolak ingurunera zabaldu eta arreta jarri behar diola haurrek eskolatik kanpo bizi dituzten esperientzien ekarpenari» dio, eta jolasa hain da gauza serioa, ezen eskubide bat dela Nazio Batuen 31. artikuluan jasotzen den moduan. Errealitatea, aldiz bestelakoa da: Espainiako estatuan, 5-12 urte bitarteko haurren %49ak egunean ordu bat baino gutxiago ematen du kalean eta gurasoen arabera, haurren %81ak baliabide teknologikoekin baino ez du jolastu nahi izaten.

Uda Ikastaro honetan, jolasari eta naturaren ezagutzari merezi duten tartea eskainiko diegu: lehenengo egunean, jolasari buruz arituko gara. Katia Hueso, "jugar al aire libre" liburuaren idazlea izango dugu gure artean, Bosquesuelako Franzi Rautenbergek jolasean eta naturan arauak eta mugak jartzeari buruz hitz egingo du eta pandemiaren ondorioz kanpo espazioak aldarrikatu dituzten herri mugimendu eta eskolei hitza emango diegu. Horrez gain, baso-eskola proiektuaren bilakaeraz arituko dira Kutxa Ekogunetik. Bukatzeko, hiru tailer praktikoko antolatuko dira. Jon Arana jolas librearen garrantziaz arituko zaigu eta Createcturako Irene Fernándezekin jolasari buruzko saio praktikoko bat egingo dugu. Bukatzeko, inguruko naturaren ezagutzari buruzko dinamika batzuk proposatuko dizkigu EHUko Jose Ramón Diezek.

Helburuak

Ingurumen hezkuntza, eskola kurrikulumean modu zuzenean txertatzearen garrantziaz ohartarazi, hau baita klima-emergentziari aurre egiteko modurik eraginkorrena. Haur Hezkuntzako etapatik hasita, ingurumen hezkuntzako edukiak landu.

Haurrek ekologia lehenengo pertsonan eta jolasaren bidez bizitzearen garrantziaz ohartarazi. Eskolako jolastokiak berritzen eta berdetzen ari garen garai honetan, jolasari gelatik kanpo eskaintzen zaion denbora luzatzeko erronkari heldu beharko genioke.

EAE n egiten diren ingurumen hezkuntzako esperientziak ezagutu, horien artean, baso-eskola proiektua eta honek izandako bilakaera.

Irakasleei eta interesa izan dezakeen edonori, jolas librean bidelagun izateko erramintak eskaini eta tokiko bioaniztasunaren ezagutzan sakondu.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2020-09-29

Online saioa zuzenean

17:30 - 17:40

Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

Maialen Sistiaga Poveda Kutxa Ekogunea - Baso-eskolako teknikaria

17:40 - 19:00

“Natura, jolaserako eta hezkuntzarako gunea“

Katia Hueso Kortekaas Grupo de Juego en la Naturaleza Saltamontes - Autora del libro "Jugar al aire libre"

2020-09-30

Online saioa zuzenean

17:30 - 19:00

“Límites y normas desde la Comunicación No Violenta“

Franziska Rautenberg --- Bosquecuela - Psikologoa, komunikazio ez-bortitzan aditua

2020-10-01

Online saioa zuzenean

17:30 - 19:00

“Ingurumen Hezkuntzaren garrantziaz“

Jose Manuel Gutierrez Bastida Ingurugela-CEIDA - Eusko Jaurlaritzako Ingurumen aholkularia

2020-10-02

Online saioa zuzenean. Kanpo espazioak aldarrikatu dituzten herri mugimendu eta eskolak.

17:30 - 17:50

“Bilbo: Eskolak Naturan! eta Iparragirre Ikastola. “

Mikel Barcenilla Alvarez Eskolak Naturan! ekimeneko sortzailea
Paula Acosta Tolosana Iparragirre Ikastola - 5 urteko tutorea eta A21eko koordinatzailea
Iraia Artetxe Egiarte Iparragirre Ikastola - 4 urteko tutorea eta A21eko talde sustatzailea
Ainitxe Castrillo Ordorika Iparragirre Ikastola - 4 urteko tutorea eta A21eko talde sustatzailea

17:50 - 18:10

“Ataun: Herri mugimendua eta Ataungo urmael bizia“

Ibon Zabala Arrillaga Joxemiel Barandiaran eskola - Ikasketa burua eta HHko irakaslea
Iñaki Sanz Azkue Ingurugela-CEIDA - Eusko Jaurlaritzako ingurumen hezkuntzako aholkularia
Intza Barandiaran Arratibel Barandiaran Barandiaran Arratibel Sarea Fundazioko baratze tailer okupazionalan baratzezain

18:10 - 18:30 "Hernani: Herri mugimendua eta Ereñozuko eraikin bioklimatiko"

Garbiñe Makatzaga Otxandorena Txirrika eskola - Zuzendaria
Iñigo Elgoro Aiaistui Txirrita Eskola - Gurasoa

18:30 - 18:50 "Tolosa: mugimendu berdean aitzindari "

Iñigo Muñoz Lopez Tolosako Udala - Ingurumen teknikaria
Itxaro Iturzaeta Iraola Samaniego ikastetxe - Haur Hezkuntzako irakaslea
Ander Muñagorri Lasa Laskorain Ikastetxea - Haur Hezkuntzako arduraduna

18:50 - 19:10 "Alkiza: ingurumen hezkuntza Alkizan"

Alaitz Bilbao Garay Alkizako Udala - Ingurumen teknikaria
Unai Aldasoro Casales Alkizako Eskola - Irakaslea
Maite Laso Peña Arantzadi Zientzia Elkarte - Ornitologoa

19:10 - 19:30 "Baso-eskola proiektuaren bilakaera"

Maialen Sistiaga Poveda Kutxa Ekogunea - Baso-eskolako teknikaria

2020-10-03

Saio presentziala EKO GUNEAN

09:00 - 11:00 "Zer da jolas librea eremu hezitzaile batean?"

Jon Arana Albeniz Luzaro psikomotrizitate eskola - Pedagogo terapeutikoa eta psikomotrizista

11:00 - 13:00 "jolasaren inguruko tailer praktikoa-CREATECTURAREN eskutik"

Irene Fernandez Alvarez Createectura

14:00 - 17:00 "Inguruko bioaniztasunaren inguruko tailer praktikoa Aranzadiren eskutik"

José Ramón Díez López UPV/EHU

Zuzendaritza



José Ramón Díez López

UPV/EHU, Irakasle Agregatua

Licenciado (1994) y Doctor en Ciencias Biológicas (2000) por la UPV/EHU. Profesor Agregado en el Dpto. de Didáctica de la Matemática y de las Ciencias Experimentales de la Facultad de Educación de Bilbao. Imparte docencia en los Grados de Educación Primaria (Ciencias de la Naturaleza) y de Educación Social (Educación para la Sostenibilidad), así como en el Máster de Formación del Profesorado (Ciencias de la Tierra en la ESO), en el Máster en Biodiversidad, Funcionamiento y Gestión de Ecosistemas (Normativa de aguas continentales y Restauración fluvial) y en el Máster de Paisaje, Patrimonio, Territorio y Ciudad (Bases ecológicas para la ordenación sostenible del Territorio). Sus líneas de investigación se centran en la Educación científica (cómo enseñar mejor las ciencias de la Tierra y de la Vida) y en la Educación hacia la Sostenibilidad, con especial atención al agua y al territorio.



Maialen Sistiaga Poveda

Kutxa Ekogunea

Biologian doktorea da eta Euskal Herriko Unibertsitatean, British Columbiako Unibertsitatean (Kanada) eta Cagliariako Unibertsitatean (Italia) aritu izan da lanean ikertzaile eta irakasle gisa. Esperientzia zabala du aisialdi taldeen koordinazioan eta egun Kutxa Ekoguneko baso-eskola proiektuko teknikaria da. Gainera, EuskalNatura taldeko kidea da eta UEUko Irakasleen Prestakuntza Masterreko irakaslea.

Irakasleak



Paula Acosta Tolosana

• Izena: Paula Acosta Tolosana, 35 urte • Ikasketak: Haur hezkuntzan eta atzerritar hezkuntzan graduatua. • Lan esperientzia: Iparragirre ikastolan Haur Hezkuntzako tutorea. • Agenda 21eko kide: Agenda 21eko koordinatzailea 2011- 2012 ikasturtetik. • Zergaitik A21? Gaur egungo gizarteari aldaketa bat eman behar diogulako. Sustraietatik ohiturak aldatzea izaten da errazena eta haur hezkuntza da gure sustraia eta hortik abiatzen gara gu. Iparragirre ikastola 2014ko irailan sortarazi zen, Karmengo ikastola eta Iparragirre eskolaurre bateratzearen emaitza izan zen. Erronka berri honetan, Iparragirre ikastola sortu zen, Bilbo erdigunean Iparragirre kalean hain zuzen ere. Ikastolaren baloreetako bat jasangarritasuna izanik. Iparragirrek, etorkizunerako hezkuntza jasangarri baten alde egiten du. Ingurumen -arazoen konponbidean parte hartzeko ezaguera, gaitasuna, motibazioa eta konpromisoa garatuz. Bilboko erdigunean kokatuta gaudenez, naturarekiko lotura zuzenakoa batzordea egiten ditu.



Unai Aldasoro Casales

Irakasletzan diplomatua eta Psikopedagogian lizentziatua. Egun, Alkizako eskola txikiko ikasketa burua eta LHko irakaslea da.



Jon Arana Albeniz

Irakasletzan diplomatua, Psikopedagogian lizentziatua eta Hezkuntza eta Terapia Psikomotorean titulatu da. Lehen Hezkuntzako irakaslea izan da eta irakasleen formazioan eskarmentu handia du: ADARRaren izenean (1994-1995), Eusko Jaurlaritzak antolaturiko Garatuko ikastaroan (2007) eta Bergarako UNEDeko Psikomotrizitate Eskolan. Gainera, Bilboko "Kiribil" Psikologi eta Psikomotrizitate zentruan terapia lanetan dabil 2006. urtetik. Zenbait liburu argitaratu ditu, besteak beste "7 casos de terapia psicomotriz".



Iraia Artetxe Egiarte

• Izena: Iraia Artetxe Egiarte • Adina: 29 urte • Ikasketak: Haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta heziketa berezian graduatua. • Lan esperientzia: Iparragirre ikastolan Haur Hezkuntzako tutorea. • Agenda 21eko kide: 2016-2017 ikasturtetik. • Zergaitik A21? Bilbo erdigunean ikasleei naturarekiko lotura zuzenagoa bilatu nahi dugulako. Naturak eskaintzen diguna ikasleei hurbildu eta etorkizuneko gizarte arduratsua sortzeko aukera dugulako irakasle izanda.



Intza Barandiaran Arratibel Barandiaran Arratibel

Biologoa ikasketaz, ingurumen hezkuntzan jarduna, baina azken urteotan Sarea Fundazioko baratze tailer okupazionalan baratzezain eta hezitzailea. 3 semearen ama da eta Ataunen, natura ikasketarako eremu aldarrikatzeko herri mugimenduan parte hartzen ari da beste zenbait familiekin batera.



Mikel Barcenilla Alvarez

menditek

Bilbotarra, 44 urte. Haur eta Lehen Hezkuntzako irakaslea, mendi kirol teknikaria eta mendi gidaria. EA21eko koordinatzailea izan da, Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroko irakaslea (aurten itxi dutela salatu nahi du) eta EDE aisialdi-eskolan ingurumen eta naturaren inguruko ikastaroak ematen zituen. Gaur egun Bilboko Mujika Eskolan lan egiten du. Txikitan eskaut taldean sartu zenetik, harreman estua dauka natura eta mendiarekin. Bertan naturan haztearen abantailak deskubritu zituen. Geroago, Bizkaiko Mendizale Federazioaren zuzendaritzako taldean eta bere Goi Mendiko Eskolan, segurtasun arloan lan egin du. Esperimentazioaren bitartez ikasteko lekuri proposena Natura delakoan dagoenez, Eskolak Naturan! Ekimena martxan jarri du; natura maitatzeko, ezagutzea ezinbestekoa delako.



Alaitz Bilbao Garay

Ingurumen Zientzietan Lizentziatua Valentiako Unibertsitate Politeknikoan. 2009. urtetik Alkiza eta Villabonako Udaletako Ingurumen teknikaria eta Tokiko Agenda 21eko koordinatzailea da. Alkizako Fagus Alkiza proiektuaren koordinatzailea da, Natura, Gizakia eta bi hauen arteko harremanetik sortutako Kulturaz osatzen den proiektua. Alkizako herria kokatzen den inguru naturala kontserbatu, balioan jarri eta ezagutarazteaz gain; gizakiak naturarekin duen harremanetik sortzen diren proiektuez hornitzen da, herri garapen proiektu bat da, integrala eta dinamikoa. Proiektuaren giltzarria herritarrak dira, eta herriko haur eta gazteak etorkizuna. Hauek, Alkiza inguratzen duen altxor naturalak ezagutu eta bere egiten badituzte, etorkizuneko herriko biodibertsitatea eta natur baliabideen zaintza bermatuko dela uste du.



Ainitxe Castrillo Ordorika

• Izena: Ainitxe Castrillo Ordorika • Adina: 46 urte • Ikasketak: Haur hezkuntza, lehen hezkuntzan eta heziketa fisikoan diplomatua. • Lan esperientzia: Iparragirre ikastolan Haur Hezkuntzako tutorea. • Agenda 21eko kide: 2018-2019 ikasturtetik • Zergaitik A21? Naturak duen garrantzia bultzatu eta erakutsi nahi diogulako gure etorkizuneko gizarteari. Haur hezkuntzan naturarekin esperimintatzeak, ikaskuntza pila bat ematen dizkigulako baita ere.



Iñigo Elkoro Aiaistui

Zuzenbidean lizentziatua eta urteetan abokatu. Egun enpresa baten administrazioan. 2010 aldera bioerikuntzarekin harremana hartu zuen, 2012an lastozko eraikuntza ikastaro bat egin eta betirako maitemindu zen eraikuntza naturalaz. Bioeraikuntzan formakuntza saio ugari jaso ditu, baita antolatu ere (lastoa, buztina, karea eta material hauekin lotutako lotutako teknikak). IEBren Bioerikuntza masterduna. Esperientzia praktiko zuzena, egun familia bizi diren eraikina oso osorik eginez. Egur, lasto eta buztinezko etxea eraiki zuten Ereñozun, lursail hutsetik abiatuz. Egun oraindik orain material eta teknika berriak deskubritzen eta gozaten ibiltzen da. Komunitatearen potereaz konbentzita, Ereñozuko Txirrita eskolako patioan egur eta lurrezko txabola eraikitzen dihardute.



Irene Fernandez Alvarez

Arquitecta y músico especializada en el diseño de espacios artísticos y pedagógicos. Su experiencia es muy variada, abarcando desde el campo escénico, al trabajo como artista visual y el de diseñadora de ambientes de aprendizaje. En los últimos años ha centrado su trabajo en la investigación y desarrollo de espacios de innovación pedagógica a través de diferentes lenguajes artísticos. Presidenta de la asociación pedagógica ILER (Innovative Learning Environment Research) y fundadora y coordinadora del proyecto CREATECTURA, está especializada en el público familiar e intergeneracional y en la formación y acompañamiento de maestros y educadores en diseño de ambientes, la integración artística en las aulas y el desarrollo creativo.



Jose Manuel Gutierrez Bastida

Maestro. Especialista Universitario en EA por la UNED. Master en EA por el Instituto de Investigaciones Ecológicas. Mención especial en el 1º Premi Francesc Xavier Gil (ICE de la Universidad de Barcelona). Experiencia laboral en varias escuelas e institutos. Once años en el Centro de Experimentación Escolar de Pedernales, ocho como Director Pedagógico. Ahora, en Ingurugela (Servicio de Educación Ambiental del Gobierno Vasco) desarrollando formación docente, asesoría e investigación. Más de 50 publicaciones (artículos, ponencias, libros, etc.) sobre constructivismo, evaluación, autorregulación de los aprendizajes, procesos de EA, educación ecosocial... Investigaciones actuales: "Currículo de emergencia climática y competencia ecosocial", "Evaluación y participación en ESenRED (red de redes de escuelas hacia la sostenibilidad)", "La Conferencia de Jóvenes Cuidemos el Planeta: su aportación al desarrollo competencial y en sostenibilidad del alumnado"...



Katia Hueso Kortekaas

Katia Hueso Kortekaas es bióloga por la Universidad de Leiden (Países Bajos) y doctora en Sociedad y Cultura por la Universidad de Barcelona. Desde 1994 trabaja como consultora en temas de medio ambiente y desarrollo sostenible, en diversos países de Europa, América y África y es profesora asociada de ICAI/Universidad Pontificia de Comillas. En el año 2011 fundó la primera escuela infantil moderna en la naturaleza en España, el Grupo de Juego en la Naturaleza Saltamontes y poco después, la iniciativa Naturaleza Inclusiva, dirigida a facilitar el contacto con la naturaleza para familias con niños con

discapacidad. Es vocal de la Asociación Nacional de Educación en la Naturaleza (EdNa), embajadora del movimiento “Children of nature worldwide hand in hand”, conferenciante, formadora y autora de varios trabajos sobre la materia, entre los que destacan los libros “Somos naturaleza” (2017) y “Jugar al aire libre” (2019).



Itxaro Iturzaeta Iraola

Anoetarra jaiotzez, egun Tolosan bizi da eta 7 urte daramatza Samaniego ikastetxe publikoan lanean. Haur Hezkuntzako espezialitateko Magisteritza ikasketak egin zituen eta hasierako urtetan Tolosako euskaltegian aritu zen irakasle lanetan 5-6 urtez. Ondoren ordezkapenak egiten hasi zen eskola publikoetan, gehienbat Tolosa inguruan (Ormaiztegi, Alegi, Asteasu, Zizurkil, Donostia... eta Tolosa). Samaniego ikastetxean, baso-eskolan parte hartu duten ikasleen tutorea izan da.



Maite Laso Peña

Biologian lizentziatua, zoologian espezializatua Madrilgo Complutense Unibertsitatean eta Lurreko Ekologia eta Biodibertsitatearen Kudeaketaren Masterra Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Ornitologiari buruzko proiektu ugarietan lan egin du ikertzaile moduan eta Aranzadiren Erantzuntze Bulegoko eratzunle aditua da. Gaur egun, Aranzadi Zientzia Elkarteko Ornitologia Sailean lan egiten du proiektu ezberdinetan. Ornitologia Saileko formakuntza, sentsibilizazio eta ingurumen-hezkuntza proiektuen arduraduna da. Hegaztiei buruzko hainbat ikastaro eta tailer ematen ditu.



Garbiñe Makatzaga Otxandorena

Goizuetan jaio eta bizi da, naturaz inguratutako ingurunean. Ikasketak Gipuzkoan egin zituen eta irakasle lanetan 16 eman ditu. Hasierako urteetan EAEko probintzia guztiak pasa eta Nafarroan eman zituen urte gehienak. Eskola handi eta txikietan ibili izan da eta azken 7 urteak eskola txikietan eman ditu. Hiru urte daramatza Txirrita eskolan eta 2 zuzendaritzan. Ikasketei dagokionez, Heziketa Berezia egin zuen EHUn eta Entzumena eta mintzaira Mondragon Unibertsitatean. Alor ezberdinetan egin du lan eta azken urteetan tutore lanetan dabil.



Ander Muñagorri Lasa

Heziketa fisikoan eta Haur Hezkuntzan diplomatura (HUHEZI, Eskoriatza). Momentu honetan Laskorain ikastolako Haur Hezkuntzako zuzendaria da.



Iñigo Muñoz Lopez

Formazioz, Nekazaritza injenieria Nafarroako unibertsitate publikoan. Irakaskuntzan 10 urte eman eta gero, landa eremuko proiektuak egiteari ekin zion aholkularitza bat abian jarri. Gaur egun Tolosako udaleko Ingurumen eta Landa eremuko teknikaria da. Lanpostu horretatik ingurumen hezkuntza sustatzen dihardu eta azpiegitura berdeak sortzen eta egokitzen biodibertsitatea eta ekosistemen osasuna hobetzeko asmoz.



Franziska Rautenberg ---

SentimosNecesitamos

Franziska Rautenberg, formadora certificada de la Comunicación NoViolenta según Dr. Marshall B. Rosenberg por el CNVC, titulada en psicología por la Univ. Freie Universität Berlin, terapeuta sistémica familiar y de pareja por la Escuela Vasco Navarra de Terapia Familiar y de embodied peacemaking según Paul Linden. Directora de SentimosNecesitamos. Impulsora y coordinadora del primer FamilyCamp de la Comunicación NoViolenta en España, formadora para el profesorado de CAP de Navarra, colaboradora de la Asociación para la Comunicación No Violenta, Bosquescuela y 21Kolore y facilitadora de formación de crecimiento personal y gestión de conflictos, coach y acompañamiento individualizado. Mi gran afición es la creación de espacios de relaciones humanas vivos, de confianza y empatía. Así como difundir la CNV como terapeuta y formadora, con proyectos como "SentimosNecesitamos", "El sueño de la jirafa", la "CNV en Familia", etc.



Ibon Zabala Arrillaga



Iñaki Sanz Azkue

Biologian Lizentziatua (2004) Euskal Herriko Unibertsitatean. Egun, Donostiako Ingurugela-CEIDako teknikaria da. Herpetologiako hainbat arlotan lan egin du. Burutu dituen lan gehienak herpetofaunari buruzko inbentariatzeko, jarraipen eta kontserbazioari loturik badaude ere, narrastien genetikari buruzko ikerketan ere badu esperientzia. Herpetologia utzi gabe, beste hainbat adar ere jorratu izan ditu, botanika esaterako. Hainbat landare mehatxatutako buruzko lanak burutu eta publikatu ditu. 2006tik ondare naturalaren eta ahozko ondarearen ezagutza eta kontserbazioari loturiko jakintza-alor anitzeko hainbat proiektutan lan egiten du eta koordinatzen ditu. Azken urteetan Argia astekariaren, Gara egunkariaren eta Urumeako Kronikaren kolaboratzaile ere bada, eta ingurumenari, etnografiari eta zientziari loturiko dibulgazio erreportajeak idazten ditu.

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2020-09-28 ARTE
OROKORRA	81,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	69,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	20,00 EUR
ELKAR txarteldunak	69,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	69,00 EUR
IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA	69,00 EUR

Kokalekua

Online Ikastaroa zuzenean / Ekogunean Taillera

Rekalde errepidea - Hernani z/gabe (GI-2132, 2.km-a). 20009 Donostia

Gipuzkoa